2009-II-27
Número **268.** zenbakia

# astekaria

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

## EDITORIALA

### Erantzun egin behar

**Nekeza egingo zaigu egoera ekonomikoaren zikloa noiz bukatuko den atzematea. Krisia sortu duten horiek eta arduradun politikoek ere ez baitakite noiz eta nola amaituko den. Dena dela, bizitzen ari garen narriatze prozesu honetan, politikari zein enpresaburuek betiko neurriak proposatzen dituzte krisi egoera honetatik irteteko. Gure ustetan, ordea, jorratu beharreko neurriak beste norabidetik bideratu behar dira. Azken finean, ez da egia krisiaren ondorioak denok neurri berean nozitzen ditugula. Hazkunde ekonomikaren garaietan langileentzako mesede gutxi izan dira eta, aldiz, ekonomia moteltze sasoietan edo krisia garaian, langileak gara benetako kaltetuak. Hau marka! Eta noiz da gurea, langileena hobetzeko txanda?**

**Begiratzen dugun lekutik begiratuta ere lapurreta dago zabalduta gure artean. Enpresariei sozietateen gaineko zergan barkatzen zaizkion ekarpenak lapurreta da; beste hainbeste ondarearen gainekoarekin; iruzur fiskalaren aurkako neurriak ez hartzea lapurreta da ere. Beste izenik ez du, lan munduan langileok nozitzen dugun zapalketa: soldatak bere horretan mantendu edo jaitsi nahia, behin-behinekotasuna ugaltzea, espedienteak, kaleratzeak, enplegu suntsiketa. Guzti horiek zer dira bada langileei lapurtzea baino?**

**Aurpegia behar da gero!**

**Guzti honi taxuz erantzuteko, abian jarri dugun kanpainaren ardatz nagusienetarikoa mobilizazioarena da. Ezinbestekoa zaigu asmo horiei aurre egin eta merezi duten erantzun sendoa ematea. Eta eskualdez eskualde, lantokiz lantoki mobilizazioaren garra suspertu behar dugu. Langileok nazkaturik gaude betiko pagatzaileak izaten. Langileen ondoeza eta haserrea presio eta mobilizaziora bideratzen badugu nahiko lan. Hasi dugun kanpainaren ondorioak eraginkorrak izan daitezen, mobilizazio oihartzuna geroz eta handiagoa, geroz eta ozenagoa behar du izan Euskal Herriko bazter guztietan. Bidera ditzagun, bada, horretara gure ahalegin guztiak pena merezi du eta.**




### 8 DE MARZO, DÍA INTERNACIONAL DE LA MUJER TRABAJADORA

# ORGANIZARSE Y LUCHAR

### Alazne Alonso, responsable de políticas de género, destaca la necesidad de movilizarse para que la precariedad laboral deje de tener rostro de mujer

**-Organizarse y luchar. Ese es el mensaje de ELA para este 8 de Marzo. ¿Qué queremos decir con eso?**

-La lucha contra la precariedad es uno de ejes principales de nuestra acción sindical. Y es evidente que, en el mundo del trabajo, la precariedad tiene rostro de mujer. En ELA esto lo tenemos muy claro, no sólo el 8 de marzo, sino todo el año. Somos mujeres y trabajadoras, y queremos ser dueñas de nuestras decisiones y de nosotras mismas. Nuestra experiencia demuestra que para lograr este objetivo debemos organizarnos y luchar. Para ello, la acción sindical es nuestro mejor instrumento.

**-El de las mujeres, junto al de jóvenes e inmigrantes, es el colectivo que sufre una mayor discriminación en el mercado laboral. ¿Por qué?**

-Destacaría tres responsables principales: la patronal; la administración y los gobiernos; y el machismo o patriarcado. La patronal es codiciosa y prima sus intereses y beneficios frente a las condiciones laborales de la clase trabajadora. Para ello le conviene tener sectores precarios, que los ven como mano de obra barata. Evidentemente, las mujeres somos un colectivo que a la patronal le interesa que estemos en una precariedad constante. No les importan nada nuestras condiciones laborales, solo buscan ganar más y más.

Los gobiernos y la administración también tienen gran parte de responsabilidad. No asumen su papel y no llevan a cabo políticas tendentes a erradicar la discriminación que sufrimos las mujeres. No destinan dinero suficiente a gasto social, de modo que no se garantizan servicios sociales. Como esos derechos no están garantizados en el ámbito público, la mujer es la que está obligada a hacerse cargo de esos trabajos en el ámbito privado.

> *"Gazteekin eta etorkinekin batera sektore prekarioenetan egiten dugu lan"*

> *"Gure erabakien jabe izan nahi dugu, emakumeak eta langileak garelako"*






**Alazne Alonso**

*Sigue en la página 2*

### Nafarroako langileen egoera gogorraren aurrean, soldata eta enplegu gehiago exijituko du ELAk negoziazio kolektiboan

# GOBERNUA ETA PATRONALA, LANGILEEN AURKA

Nafarroako langileek bizi duten egoera latza salatu dute negoziazio kolektiboko arduradun Joseba Villarrealek eta ELAk Nafarroan duen arduradun Mitxel Lakuntzak. "Gobernuak agerikoa den ituna du patronalarekin, eta langileak gara horren guztiaren ondorioa pairatzen dugunok".

Mitxel Lakuntzak salatzen duenez enpresek Enplegu Erregulazio-Espedienteak erabiltzen dituzte euren irabazi itzelak mantentzeko. "Helburu hori lortzeko kostuak murriztea erabaki dute, langileak kaleratuz. Azken finean, enplegua euren interes eta irabazien arabera egokitzen ditu".

Lakuntzaren arabera, bi dira hori egin ahal izateko patronalak baliatzen dituen faktoreak. "Batetik azken urteetan bata bestearen atzetik onartu diren lan erreformak egongo lirateke. Erreforma horien ondorioz langileak eskubideak galtzen joan dira urtez urte, patronalaren interesen mesedentan. Bestetik Gobernuaren jarrera dago. Eurak dira enpresarien lagunik onenak. Enplegu Erregulazio-Espedienteak jorratzeko orduan soilik patronalaren interesak defendatzen dituzte. Nahiko desorekatua den indar korrelazio batean indartsuenaren aldeko jarrera hartzen dute, langilea defendatu ordez. Iragan urtean akordiorik gabe aurkeztu ziren Enplegu Erregulazio-Espedienteen %97 onartu zituen. Datu horrek guztia esaten du".




*3. orrialdean jarraintzen du*




Para la administración la igualdad es algo que se limita a sacar un cartel cada 8 de marzo. O, como mucho, a crear organismos paralelos, sin competencias y vacíos de contenidos.

**-También has comentado el machismo y el patriarcado de nuestra sociedad.**

-Seguimos viviendo en una sociedad patriarcal, donde el único trabajo valorado es el realizado por el hombre. La labor reproductiva y la asignada tradicionalmente a las mujeres se mantiene invisible e infravalorada.

La mujer ha sido la que ha cuidado de los niños y mayores, la que ha servido la comida en la mesa, la que ha llevado los puerros de la huerta al mercado... Cuando el trabajo que tradicionalmente las mujeres hacían en casa ha salido al mercado laboral, no se ha valorado. Hablamos del sector sociosanitario, de la hostelería, el comercio...

Por eso, las condiciones de trabajo en los sectores anteriormente mencionados son tan precarias.

**-¿Qué instrumentos tiene ELA para hacer frente a esa situación?**

-Nuestro objetivo es hacer frente a la precariedad. Y eso sólo se consigue organizándose y luchando. Tenemos numerosos ejemplos de que luchando se pueden conseguir muchas cosas: tenemos el caso de varias residencias, de ayuda a domicilio en Gasteiz, de la lucha por la equiparación en varias localidades, de Ariznavarra, de FCC en Basauri...

Tenemos que tener una cosa clara: la patronal, ni la pública ni la privada, nos van a dar absolutamente nada, porque, entre otras cosas, no tienen la más mínima intención de compartir su tarta. No es casualidad que las huelgas de mayor duración estén protagonizadas por mujeres.

Por lo tanto, no nos queda otro camino que luchar, movilizarse, organizarse... No conozco ningún caso en el que hayamos ganado sin luchar. Pondré un ejemplo muy reciente. El sector de ayuda a domicilio de Araba ha alcanzado un acuerdo digno gracias a la lucha y a las movilizaciones realizadas en los fríos meses de invierno. Hemos conseguido regular y aumentar las horas fijas de trabajo, disminuir las horas de disponibilidad –de 62 a 20 horas semanales– y una subida salarial del 4,7% hasta el año 2010. Además de las mejoras del convenio, hemos logrado organizar un sector hasta ahora disperso y hacer visible el trabajo social que realizan las mujeres. Esto habría sido imposible de conseguir si nuestra gente no hubiera luchado por unas condiciones dignas. No nos van a regalar nada, todo lo que consigamos nos lo tenemos que ganar nosotras.

**-¿Cómo afecta la actual coyuntura económica a las mujeres?**

-Destacaría dos cosas. Por una parte, denunciar aquellas voces que, basándose en datos interesados y parciales, destacan que se destruye más empleo masculino que femenino. Por ello, proclaman la hipótesis de que la crisis está afectando más a los hombres que a las mujeres. Es evidente que la crisis está afectando principalmente al sector industrial y a la construcción, y que la mayoría de la gente que trabaja directamente en esos sectores son hombres. Las mujeres, actualmente, ocupamos principalmente los puestos de trabajo del sector servicios. En este sector la precariedad es patente: sueldos bajos, jornadas largas, flexibles…

Por lo tanto, la lectura que hacen es sesgada y manipulada. A día de hoy, la tasa de paro femenina sigue siendo superior a la masculina.

Pero, por otra parte, hay una idea central que querría destacar. Las mujeres llevamos muchos años en crisis. Llevamos años con contratos precarios, con sueldos ridículos, con jornadas eternas, sin derechos laborales... Para nosotras no ha habido ni bonanza económica, ni crecimiento, ni nada de nada.

A una mujer que trabaja en la hostelería, en un supermercado o en una residencia de la tercera edad cobrando 750 euros al mes, ¿de qué crisis le estamos hablando? Las trabajadoras de Sabeco en Rentería, que cobran el convenio estatal, un convenio de miseria, llevan muchos años en crisis. Muchas mujeres tienen unos sueldos tan escasos que ojalá fueran mileuristas. Todas esas mujeres sólo han conocido, y siguen conociendo, precariedad y crisis.

### Las trabajadoras de la residencia Ariznavarra, de Gasteiz, han cumplido un año de huelga en defensa de un convenio que de pasos hacia la equiparación

# LECCIÓN DE DIGNIDAD

Las 95 trabajadoras (son 125) que secundan la huelga reconocen estar un poco cansadas –no esperaban que la lucha iba a ser tan larga– pero, al mismo tiempo, aseguran estar fuertes y animadas “porque el objetivo merece la pena y porque ni empresa ni Diputación han ofrecido nada en este año que nos empuje a volver al trabajo con normalidad”.

Izaskun Gana, responsable de ELA-Gizalan en Alava, tras calificar a estas trabajadoras de “admirables” y afirmar que “su enorme fuerza reside en la unidad del colectivo”, afirma que este año de conflicto ha servido para conocer de cerca el nivel político de los gobernantes de la Diputación de Alava. “Este no es un problema de dinero: no se han sentado siquiera a valorar las reivindicaciones de las trabajadoras y calcular su coste económico, sino de modelo social, del sector público y la sociedad por la que se apuesta”, asegura. “El PNV –continúa– tomó en su día la decisión de subcontratar todo el sector sociosanitario, y eso ha supuesto una precarización de las condiciones de trabajo de la gente, una rebaja del 40% en las retribuciones que reciben, y, paralelamente, y como no puede ser de otra manera, una merma en la calidad del servicio que se ofrece”, ha denunciado Izaskun Gana.

## CERRAZÓN Y LAVADO DE MANOS

Esta responsable de ELA-Gizalan es muy crítica con la actuación de la empresa adjudicataria, Mapfre Quavitae, y la Diputación a lo largo de este año de conflicto. “Cuando expiró el pacto de empresa que logramos hace 5 años tras 8 meses de huelga, la empresa nos amenazó con llevarnos al estatal. Empezamos a presionar a la Diputación y ésta le pagó 2.400.000 euros que le debía y le incrementó el precio por plaza día en un 43%. Tras conseguir el dinero Mapfre nos llevó al estatal. La Diputación no tuvo ni la visión ni la voluntad política de condicionar parte de esa cantidad a la solución del conflicto con las trabajadoras”, denuncia.

“Cuatro meses más tarde –continúa Gana con el relato de los hechos– y tras numerosos requerimientos notariales por parte de la Diputación, la empresa reconoce el Pacto de Ariznavarra, pero la negociación del nuevo convenio continúa en vía muerta”.

Además de falta de visión y de querer eludir su responsabilidad en el conflicto, Gana denuncia que la Diputación no cubre las 40 plazas que han ido quedado vacantes a lo largo de este año en Ariznavarra, a pesar de la larga lista de espera existente. “Que haya menos residentes, sumado a las tres modificaciones de servicios mínimos que han sufrido las trabajadoras han minimizado el efecto de la huelga”, denuncia esta sindicalista, al tiempo que lo suma a la larga lista de obstáculos a los que se han enfrentado a lo largo de este año.

Para finalizar, Izaskun Gana emplaza, una vez más, a la Diputación a que tome cartas en el asunto porque, al fin y al cabo, es la titular y responsable última de este servicio público.




## GREBAN DAUDEN EMAKUMEAK, PROTAGONISTA

**ELAk martxoaren 6an, ostirala, egingo ditu Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren inguruko ekitaldiak. Egunari goizeko 10:00tan emango zaio hasiera Bilboko Ayala Antzokian egingo den jardunaldiarekin. Bertan, idazkari nagusiak, Adolfo Muñozek, *Txiki*, eta genero arduradunak, Alazne Alonsok, hartuko dute parte.**

**Baina, zalantzarik gabe, greban dauden emakumeak izango dira protagonista nagusiak: hirugarren adinekoen Ariznavarra egoitzako, Errenteriako Sabecoko, Gipuzkoako Erresidentzietako edo telemarketing sektoreko emakumeek euren esperientziaz mintzatuko dira. Ekitaldiaren ostean, manifestazio batek Ayala Antzokia eta Diputazioa lotuko ditu.**

## Testuinguru orokorra dela eta, Komunikazio arduradun Patxi Agirrezabalak egunerokotasuna izan duten gaiak aztertzen ditu

# "MOBILIZATU BEHARRA DAGO"



**-Hauteskunde politikoen atarian, beste behin, ELAren siglak agertu dira alderdi politiko baten edo besteren babesean. Zein iritzi du ELAk honetaz?**

-Ez da gauza berria alderdi politikoek hauteskunde garaitan gure siglak erabili nahi izana. ELAk ordea betitik eman dio balore handia bere independentzi politikoari eta horregatik arautua du bere barne arauditan kargu politiko eta sindikalaren arteko bateraezintasuna. Era berean, hauteskunde politikoetako lehian ELAren siglaz inor ez baliatzeko erabakia hartua eta gure estatutoetan jasoa dugu. Beraz, ezinbestekoa da hori errespetatzea.

Hori horrela izanik, zenbait afiliatu ELAren siglez baliatzen ari direla helburu alderdikariekin jakin bezain pronto, harremanetan jarri gara beraiekin barne-arauen debekua jakinarazteko eta ELAren siglak gehiago ez erabiltzeko.

*"ELA rechaza la utilización de su sigla con fines partidarios"*

Urte askoetan gure ezaugarria izan den printzipio hau zaindu eta babestu beharra dugu, gure nortasuna eta independentzia bermatze aldera. Horregatik diogu arretaz begiratuko dugula edozein egoera gure barne-arauak errespetatuak izan daitezen.

**-Testuinguru honetan ere, baina gaia aldatuz, LABek dei publikoa egin dio ELAri elkarlanerako. Zein balorazioa egiten dugu?**

-Lehenik eta behin adierazi behar dugu, dokumentuaren edukietan sartu barik, bi organizazioen artean eztabaidagai izan ditugun gaiak hortxe dirautela. Ekimen sindikalarekin lotura duten Negoziazio Kolektiboa, Partehartze Instituzionala, joko arauen errespetoa edota eremu politikoarenak, amankomunezko irakurketa behar dute eta hori ezin da sahiestu.

Beste aldetik begiratuta, bi organizazioek jakin badakigu honelako izaera duten dei publikoak egiten diren momentu bertatik amortizatuak geratzen direla eta ibilbide antzua dutela.

Testuinguru orokorrari buruz ELAk egiten duen diagnostikoa eta hausnarketaren berri jakitun da LAB. Zentzu horretan gu beti prest gaude beraiekin lanean jarraitzeko. Bereziki oso garrantzizkoa deritzogulako elkarlan hori eta sinesgarritasuna eman nahi diogun heinean, bion artean izan ditzakegun iritzi ezberdinak edota adostasunak ez ditugu hedabideetan plazaratuko. Beraz, gure iritzian, LABek egin duen bide mediatikoa ez da bidea.

**-Bestalde, egoera ekonomiko eta soziala larritzen doan honetan, nola ikusten dituzu datozen hilabeteak?**

-Ez dira, ez, hilabete samurrak izango. Makina jenderen lan eta bizi baldintzak narriatze bidean daude eta langabezia tasak ere goraka doaz etengabe. Egoerak erantzutea merezi du. Gobernuen jokamoldeak eta patronalarenak ere, erantzun gogor bat eskatzen dute. Funtsean hori da gure kanpainarekin aldarrikatzen duguna. Mobilizatu beharra dago eta, langile klasearen ikuspegitik, gure interesek kokagune zentrala hartu behar dute. Politikoak eta patronalak behartu behar ditugu gure interesak errespetatzen. Hori izango da sindikatuaren ekimen nagusia datozen hilabeteetan. Mobilizatzera goaz, etenik gabe eta indar guztiz.

---

*1. orrialdetik dator*

Nafarroako Gobernuak, CEN patronalak eta CCOO eta UGT-k IV Enplegu Plana sinatu berri dute, 1999az geroztik sinatzen duten laugarrena. Lakuntzak hitzarmena propaganda hutsa dela dio. "Langabezia nabarmen igo da, 12.000 lagun inguru. Horietatik %83,3k behinbehineko kontratuak zituzten. Hori da euren enplegu plana".

"Enpresek izugarrizko irabaziak izan dituzte azken 15 urteetan, besteak beste, sortu duten enplegua prekarietatean oinarritu delako. Orain, enpresek errez dute irabazi itzel horiek mantendu ahal izateko: euren enplegu planek sortu duten behin-behinekotasunean eta langileen babesgabetasunean oinarrituz, nahi adina lagun kaleratu besterik ez dute".

### SOLDATA ETA ENPLEGU GEHIAGO

Negoziazio kolektiboko arduradun Joseba Villarrealen ustez, "onartezina da langileek ordaindu behar izatea gobernuek, patronalek eta bankuek sortutako egoera. Soldatak eta enplegua ez dira krisiaren arduradunak; zergatik ordaindu behar dugu guk ondorioak?". Gobernu eta patronalen betiko errezeten aurka, Villarrealek ELAk dituen proposamenak aipatzen ditu. "Zerga sistema progresiboa aldarrikatzen dugu; gastu soziala areagotzea; finantza merkatuen gaineko kontrola… Azken finean, aberastasunaren bidezko banaketa exijitzen dugu. Horretarako langileok dugun tresna eraginkorrenetakoa negoziazio kolektiboa da. Esperientziak gauza bat erakusten digu: ez dago konfrontazioa beste biderik".

*"Más salarios y más empleo; ese es nuestro objetivo en la negociación colectiva"*

### TASA DE DESEMPLEO Y TEMPORALIDAD 2008 NAVARRA

| TASA TEMPORALIDAD: | TASA DESEMPLEO: |
|---|---|
| **2007:** 65.2000 trabajadores/as27,5% | **2007:** 13.000 trabajadores/as 4,3% |
| **2008:** 4.300 trabajadores/as 23,3% | **2008:** 25.100 trabajadores/as 8,3% |
| Diferencia: 10.900 trabajadores/s | Diferencia: 12.100 trabajadores/as |

**CONCLUSIÓN:** El 90% de los desempleados vienen de la eventualidad **Datos: EPA**

### ERES 2008 NAVARRA

**TRABAJADORES/AS AFECTADOS/AS:**

**Suspensión: 7.715**

**Rescisión: 910**

**Total: 8.625**

**ERES AUTORIZADOS:**

**Suspensión: 136**

**Rescisión: 42**

**Total: 178**

**ERES NO AUTORIZADOS:**

**Suspensión de contrato: 3**

**Rescisión: 2**

**Total: 5**

**ERES QUE IBAN SIN ACUERDO: 25**

**CONCLUSIÓN: El 97% de los expedientes son aprobados**

**Datos: Gobierno de Navarra**

---

**● Euskaldunon Egunkariarekin elkartasuna**

2003ko otsailaren 20an Guardia Zibilek, Juan Del Olmo epailearen aginduz, Euskaldunon Egunkaria itxi zuten. Itxiera hori salatzeko bilkura egin zen Andoaingo Martin Ugalde Parkean otsailaren 20an. ELAren ordezkaritza zabala ere bertan izan zen. Komunikazio arduradun Patxi Agirrezabalak ELAk adierazpen askatasunarekin duen konpromisoa aldarrikatu zuen beste behin, eta auzipetuta dauden lagunei elkartasun osoa helarazi zien.

**● Pasaiako Superportuak ekonomiaren alorrean ere ondorio negatiboak utziko ditu**

Ezagunak dira Jaizkibelgo Superportuak ingurumenean izango dituen ondorio kaltegarriak. ELAk makina bat aldiz salatu ditu. Baina, instituzioek Pasaiako badiaren kanpoaldean eraiki nahi duten azpiegiturak ere ondorio negatiboak utziko ditu ekonomiaren alorrean. Hori salatu asmoz, Jaizkibel Bizirik plataformak eta ELA, LAB, ESK eta EHNE sindikatuek agerraldia egin berri dute.

ELAk Oarso-Bidasoan duen arduradun Xabier Perez Herrerok nabarmentzen duenez, agintariek azpiegitura justifikatzeko eman dituzten argudioek ez dute ez hanka, ez buru. "Proposatzen duten portuaren neurri izugarria ez dator bat ez aurreikusiriko edukiontzi trafiko eskasarekin ezta itsas autopista deitutakoekin ere, eta nekez aurreikusten da egungo trafikoa gehitzea. Ondorioz, lehenenik eta behin portua eraikuntza negozio izango litzateke eta bigarrenik salgaien biltegi eta jarduera kutsakorren kokaleku".

Perez Herrerok salatzen duenez, ez da lanpostu berririk sortuko, eta daudenak kolokan geldituko dira. "Enplegua sortzeko aurreikuspenak kea besterik ez dira, ez dute inbertsiorako dirutza justifikatzen. Portuak sortuko lituzkeen lanpostuek ez dute oinarririk, eta ez dira behar bezala zehazten. Proposatzen diren lan ekimenen arabera, lanpostu beharrak oso urriak dira, eta egungo lanak beste norabait eramateak eta zamalanak birmoldatzeak enpresek plantilak murriztea ekar lezake".

**● ELA muestra su solidaridad con Hiru**

El secretario general de ELA, Adolfo Muñoz, se reunió con los dirigentes del sindicato de transportistas Hiru que se encuentran en huelga de hambre, en protesta por el expediente abierto por el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia.

El expediente supone un precedente muy peligrosos porque abre las puertas a futuras actuaciones en contra de cualquier sindicato que reivindique unas condiciones dignas para los trabajadores y trabajadoras de este país.

astekaria

# SIGUE LA LUCHA POR LA EQUIPARACION DEL PERSONAL DE LIMPIEZA




Las trabajadoras de las empresas subcontratadas para la limpieza de los edificios y locales públicos de varios ayuntamientos han iniciado movilizaciones para exigir la equiparación salarial con el personal propio que realiza similares funciones. En los ayuntamientos de Zornotza, Renteria y Zarautz se ha alcanzado un acuerdo, siguiendo el camino trazado en los municipios de Durango, Irun, Donostia, Hondarribia y Oiartzun, así como en las diputaciones de Bizkaia y Gipuzkoa. Las trabajadoras perciben un salario inferior, en muchos casos de más de un 30% al que se recoge en el convenio del personal de los ayuntamientos (Udalhitz) y las diputaciones.

A continuación hacemos un balance de la negociación en los diferentes ayuntamientos donde se ha presentado la propuesta de equiparación.

**AYUNTAMIENTO RENTERÍA Y RESIDENCIA MUNICIPAL**

El 18 de febrero se llegó a un acuerdo entre ELA y la dirección de Eulen, que gestiona la limpieza de la residencia municipal y Limpiezas Etxegar, subcontrata del servicio de limpieza de los edificios locales. En total cuentan con 140 trabajadoras y trabajadores.

**AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ:**

Se ha alcanzado un acuerdo, que tendrá una vigencia de tres años. A partir del 1 de enero de 2010 las trabajadoras cobrarán 116 euros más al mes. Al siguiente año 232 euros más al mes y desde el tercer año de vigencia 248 euros más. La subida en este periodo será de un 33% con respecto al 2009.

**AYUNTAMIENTO DE EIBAR:**

El 21 de febrero se realizó una concentración ante el ayuntamiento, que estaba previsto repetirse el sábado 28, ante la negativa de la corporación a negociar. Las empresa Uni-2, que cuenta con una plantilla de 21 trabajadoras, es la encargada del servicio de limpieza de los edificios municipales y el centro de primaria.

**AYUNTAMIENTO DE GERNIKA**

Las trabajadoras convocaron paros para los días 25, 26 y 27 de febrero, que fueron secundados por la casi totalidad de la plantilla. Los paros afectaron a 25 trabajadoras de la empresa Garbialdi.

*Borroka luzeen ondorioz ekiparazioa lortu da hainbat udaletan*

## GREBA ANBULANTZIEN SEKTOREAN

ELA eta LAB deituta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako anbulantzietako gidariek greba egin zuten otsailaren 20, 26 eta 27an. Sektoreko arduradun Iñaki San Andresek salatzen duenez, ia urtebete daramatzate negoziatzen, baina patronalak ez du sindikatuen aldarrikapen bakar bat ere aztertzeko borondaterik agertu. "Patronalaren jarrera ikusita, ezinezkoa izan da inolako akordioetara heltzea". San Andres oso pozik dago grebak izan duen jarraipenarekin, langile guztiek bat egin dutelako deialdiarekin.

Jaurlaritzaren jarrera ere kritika-tzen du. "Duela hilabete ingurua bilera izan genuen Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailarekin, anbulantzietako patronala euren azpi-kontrata bat delako. Hitz politak jaso genituen, baina ezer gehiago. Enpresari ganorazko eskaintza bat egiteko presionatuko zigutela esan ziguten. Otsailaren 18an izan genuen bileran, ordea, patronalak egin zigun eskaintza duela hamaika hilabete egin zigutenaren ia-ia berdina. Argi dago Jaurlaritzaren hitz onek ez zutela inolako funtsik".

'Aski da!' esateko ordua heldu dela uste du ELAko arduradunak. "Orain arte mobilizazio ugari egin dituzte langileak, baina patronalak eta administrazioak gure eskakizunei jaramonik egin gabe jarraitzen dute. Greba egin beste aukerarik ez digute utzi". ELAk eta LABek gehiengo osoa dute negoziazio mahaian.

Labur Breves

### ● ELA no acepta los despidos en Koxka

Tras una larga huelga, UGT y CCOO han dado luz verde a los despidos en Koxka,191 en la planta de Iruña, y 39 en Peralta. Estos despidos han sido posibles debido a la actuación de esos sindicatos desde que la empresa presentó el expediente.

En opinión del responsable del metal en Navarra, Jokin Arbea, estamos ante una historia de renuncias que comenzó cuando trataron de imponer que la negociación se desarrollase lo mas lejos posible de los centros de Nafarroa, llevando la negociación a Madrid y así tener otra correlación de fuerzas y buscar la distancia con los trabajadores.

"Acto seguido estos dos sindicatos afirmaron una y otra vez públicamente que no estaban dispuestos a aceptar despidos en Koxka, un compromiso incumplido ya que han finalizado firmando 230 despidos haciendo caso omiso a la asamblea de trabajadores que los rechazó con una holgada mayoría. ELA ha planteado alternativas mas que viables como un acuerdo sobre limites de productividad que de aplicarse evitaría los despidos, así como bajas voluntarias o prejubilaciones. Sin embargo la Dirección con la colaboración de UGT y CCOO ha preferido los despidos y plantear un proceso de deslocalizacion".

### ● Hiru ordutako greba Gipuzkoako zahar-etxeetan

Zahar-etxeetako langileen gehiengo zabal batek bat egin du ELAk otsailaren 27rako Gipuzkoan deituta zuen hiru orduko greba deialdiarekin. Jarraipena ezberdina izan arren zentruetan, erabatekoa izan zen erresidentzia hauetan: Tolosako Iurreamendi, Andoaingo San Juan Batalatzailea, Ordiziako San Jose, Billabonako Santiago, Elgoibarko San Lazaro, Eskoriatzako Egoitza, Bergarako Mixpirualde, Errenteriako Gerontologikoa, Irungo Mendibil, Oiartzungo Petra Lecuona, eta Donostiako Aldakoenea eta Txara Bat, besteak beste.

### ● Continúan las movilizaciones de Sabeco de Rentería

Convocadas por ELA y LAB, unas 500 personas participaron en la marcha que realizaron el 27 de febrero las trabajadoras de Sabeco en Rentería. La marcha, bajo el lema *Por un convenio propio*, unió las sedes de los supermercados Sabeco y Alcampo en Rentería y Oiartzun, propiedad de la misma multinacional, el grupo francés Auchan. Las trabajadoras de Sabeco llevan en huelga desde el 13 de octubre con el objetivo de conseguir que se les aplique el convenio provincial. Actualmente se les aplica el convenio estatal, un convenio de miseria.

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207